



## BLAS DE OTERO – BILBO URIA NAZIOARTEKO XIII. POESIA SARIA

### Lana / La obra

Jokin Erkorekak liburu bat idatzi du harrimenezkoa eta kultua, sentibera eta gordina. Asko irakurri dutenen lanak izan ohi dira horrela; denbora baino lehen nostalgia bihurtuak. Hemen ez dago lehenaldirik ez etorkizunik, oraina baino ez. Sortu berri den banda baten antzera, berea ez da soilik erritmoa, ez da soilik letra. Estetika bat da, garaje bat, mundu bat, kontatu diguten mundua baino ederragoa batzuetan, itsuski ederragoa beste batzuetan. Publikoak amaieran *beste bat* eskatuko du: beste poema bat.

IGOR ESTANKONA

*Has gaitzen  
behar bezala:*

*alboratu eginen naiz  
txinaurrien eresia ez oztopatzeko,  
bide emateko eguzki-inar erradiaktiboeti,  
barruan entzun dadin kanpoko iskanbila*



### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Banda**  
Egilea / Autor: **Jokin Erkoreka**  
Saia / Colección: Poesía, 45  
ISBN / EAN: 978-84-9109-786-0  
Salneurria / Precio: 9 €  
Orri kopurua / N° páginas: 72  
Formatua / Formato: Rustika / Rústica 13 x 20,5 cm  
Materia: Poesía

### Egilea / Autor:

**Jokin Erkoreka Abio** 1991n jaio zen Gurutzetako ospitalean. Gasteizen igaro zuen haurtzaroa, eta 14 urterekin jatorrizko Bizkaira itzuli zen. Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide Ekonomikoa ikasi zuen, eta, ondoren, Musika Industriaren kudeaketa, Bartzelonako Pompeu Fabran. Haxotz hardcore musika taldean zaildu da bereziki testuak idazten; haiekin, bost bilduma eta liburu bat argitaratu ditu, azkena Lore hilak (2020), zeinetan literaturaren zantzuak dakartzan musika gogorrera. La caída del vencejo film labur sari-tuaren (Mecal, Cannes) soinu-bandaren konposizioan parte hartu zuen. La Espiral blogzine literarioaren editorea da. Denetarik egin du lan: arrainketari, udalekuko begirale, zein diskoteketako backstageetan, besteak beste. Banda du lehen poesia bilduma argitaratua.

Bilbon zehar ikus daiteke, noizik behin, txakurra paseatzen edo Kafe Antzokian kontzertuez gozatzen.

